

tratamendua

Tratamenduaren helburuak **sintomak gutxitu eta prozesu autoinmunea kontrolatzea** dira, gaixotasuna borrokatzeko gaitasuna mantenduz. Sintomak gaixotasunaren mota eta larritasunaren arabera tratatuko dira.

Normalean, kaltetuko organoak sortutako hormona edo beste sustantziak gehigarri moduan hartuko dira: tiroidearentzako gehigarriak, insulina injekzioak edo bestelakoak. Mugikortasuna edo beste funtzio batzuk laguntzeko neurriak hartzea ere beharrezkoa izan daiteke, hezurak, giltzadurak edo muskuloak kaltetuak ikusten direnean.

Autoinmunitatea kontrolatzeko inmunitate sistemaren erantzunaren parte bat ezabatzen da, gure organismoa eraso dezan ekidinez, hala ere, ezabaketa hau kontrolatua izan behar da oreka bat lortu eta inmunitate sistemak babesten jarrai gaitzan. Helburua, beraz, **gorputzaren ehun normalen kontrako erantzuna gutxitzean datza, ehun anormalen eta mikroorganismoen kontrako erantzuna bere horretan utziz**. Hau lortzeko medikamendu immunosupresoreak erabiltzen dira (hauen artean ziklofosfamida eta azatioprina). Erabilitako beste tratamendu batzuk antiinflamatorio ez-esteroideoak eta kortikoideoak dira, erantzun inflamatorioa hobetzen dutenak.

Gaur egun merkatuan farmako biologikoak deritzatenak aurki ditzazkegu. Elaborazio oso konplexuko medikamentuak dira, sistema inmunearen elementu oso konkretuen gainean eragitea helburu dutenak. Adibide bat anti-NTF delakoak dira, nekrosi tumoraleko funtzioaren faktorea blokeatzen dutenak, erantzun immunologiko eta inflamatorioaren gainean eraginez. Tratamendu hauek modernoak dira, merkatuan geroz eta ugariagoak dira, eta zenbait gaixotasun autoinmuneen kontra erantzun onak lortzen ari dira. Beste sistema berri bat Granulozito Aferesis da. Tratamendu honetan odola zenbait filtrazio prozesutatik pasazten da, sistema inmuneak sortutako zenbait agente inflamatorio biltzen dituenak. Modu honetan sistema inmunearen ondorio diren inflamazioek sortutakoaztarnak gutxitzea lortzen da.

elkartea

Oraindik asko gara elkartzeke gaudenok, baina iadanik bagara dexente arrazoi berberarengatik baturik gaudenak: Behçet-en Sindromea. Ez gara asko; horregatik pentsatzen dugu elkartzea gure eguneroko bizitzan suertatzen zaizkigun arazoak konpontzeko modu egoki bat dela.

Espainiko Behçet Gaixotasunaren Elkartetik bilatzen duguna, bai gaixoak eta bai inguratzen gaituztenak bakarrik ez sentitzea eta ahal den neurrian aholkatu eta laguntzea da. Batasunak indarra egiten duela ere ez dugu ahaztu behar, beraz, laguntza, ikerkuntza, topaketa etab. desberdinen aurrean talde moduan bakarka baino hobeto erantzun ahalko dugu.

Elkartek, bere web orriko (www.behcet.es) foroari esker, behçet-en gaixoentzako topagune eta terapia onenak sortu ditu. Web-ean gaixotasunari buruzko informazio gehiago topa dezakezu, edo nahiago baduzu, gurekin kontaktuan jar zaitezke telefono edo e-mail bidez:

helbide elektronikoa
behcet@behcet.es

telefonoa: **659 576 879**

Montserrat Pàmies, elkarteko lehendakaria

web
www.behcet.es

laguntzailea:

gaixotasun autoinmuneak



*espainiako
behçet
gaixotasunaren
elkartea*